




Tolosaldeko Alkiza eta Kubako Alquizar herriak, senidetzearen atarian

UDALA ▶ Bi herrien arteko anaitze prozesua burutzeko konpromisoa hartu du, udalbatzarrean

HERRITARRAK ▶ Hitzarmena adostu aurretik, alkizarren iritzia jasoko du, kontsulta bidez ▶ 4-5



Kubako Alquizar herria. HITZA



Herriko desafioen ingurukoak, iruditan

LEITZA ▶ Urtebetez grabaketak egin eta gero, bihar proiektatuko du Agustin Aranburu leitzarrak *Aizkolariak eta lasterkariak* bideoa. «Aizkora kontuan han-hemen entzundakoei buruz galdegin dut», dio. 22 lagunengana testigantza jasotzen du lanak. J. ASTIBIA ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

«Euskal industriaren defentsan», kanpaina

Deslokalizazioaren aurka kontzentrazioa eta auto karabana egin zuen atzo LABek ▶ 2



Kontzentrazioa, atzo, Tolosako udaletxe aurrean. N. LATABURU

TOLOSALDEA ▶

San Sebastian eguna

Orendainen, Leaburun eta Berastegin ▶ 3

AMASA
Okindegia-Kafetegia

Gaur Osteguna, 18:30ean
INAUGURAZIOA
"lunch" ikekia

K/Berria • Villabona
943 69 38 31

EKONOMIA ▶

NOELIA LATABURU

LABek Euskal Herrian abiarazi duen produkzioa lekuz aldatzeari aurre egiteko kanpaina gure eskualdera heldu zen atzo. Horrela, *Euskal industriaren defentsan, deslokalizaziorik ez!* lelopean, konzentrazio informatiboa burutu zuten Tolosako udaletxe parean; ondoren, auto karabanan Altzoko Tecasa lantegiraino ailegatu ziren, eta bertan bildu ziren ordu erdiz.

Konzentrazioan deslokalizazioa izan zuten hizpide. «Enpresak, neoliberalismoa eta kapitalismoaren eskutik, irabaziak handitzearen lantokiak eta kapitala beste herrialde batzuetara eramaten dituzte, non lan eskua oso merkea den eta lan baldintzak esplotazio hutsean oinarritzen diren; alegia, multinazionalak etekinak izanik ere Euskal Herritik hanka egiten dutela harik eta irabazi handiagoak lortzeko helburuarekin». Honela definitzen zuten auto karabanaren buruan egokitutako bozgoragailuak deslokalizazioaren arazoa. LABen ustez, gainera, maiz produkzioa beste toki batera eramatea mehatxu moduan erabiltzen du patronalak «langileoi dagozkien eskubideen aldarrikapenei uko egin diezaie; hau da, patronalak gehienetan deslokalizazioa txantaita bezala erabiltzen duela beraien nahia inposatzeko». Tolosaldeari dagokionez, lokalizazioaren arriskua duten enpresak ekarri zituen gogora LABek: «Aurreko urteetan Winckler-ekin gertatutakoa eta epe motzera ere beste zenbait enpresetan eman daiteke arriskua; Tecasan, esaterako, deslokalizatzeo asmoa azaldu dute dagoeneko eta Jaure eta Talleres Aloña enpresak multinazio-

Deslokalizazioaren arazoari aurre egiteko kanpaina burutu du LABek eskualdean

Tolosako udaletxean egin zuen atzo konzentrazio informatiboa, «euskal industriaren defentsan»; ondoren, auto karabanan Tecasa lantegira abiatu zen



Udaletxe parean egin zuten konzentrazioa, atzo; ondoren, auto karabanan Tecasa-ra heldu ziren. N. LATABURU

nalengatik erosi berriak izan dira, honek dakarren arrikua-rekin».

Arazoaren aurrean, LABek kezka du, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, Foru Aldundietatik pasatuz eta udaletxeetaraino joanaz, «kasurik onenean beste aldera begiratzen dutelako eta txarrenean erregulaziozko espedienteak baimentzen dituztelako, haien erantzukizuna betetzen ez dutelarik». Beraz, egoera honi sindikalintzak «eman

beharreko erantzunaz gain», LABen ustez garaia da politikariek eta administrazioek egoeraren larritasunak eskatzen duen araberako erantzunkizunez joka dezaten eta, «behin-goz, deslokalizazioaren aurka neurri eraginkorrak har ditzaten».

Arazoaren aurrean, neurriak

Hainbat neurri ere proposatu ditu sindikatuak «arazo larri honi» aurre egin helburuz: ba-

etik, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Nafarroako gobernuak Industria Enpresa Publiko indartsua sortu eta egituratzea, euskal ekonomia- ez sektore eta azpisektore eragileei eutsiko zaiela eta garatuko direla berma dadin. Eta, honenkin batera, Euskal Herrian kokaturiko estatupeko enpresa publikoen titulartasuna galdetzea. Bestetik, baliabide publikoak ondorengo helburuak lortzeko asmoz erabiliko lituzkeen industri politikoa publi-

ENPRESAK

Tolosaldean ere arriskuan dauden enpresak aipatu ditu LABek: Tecasa, Jaure eta Aloña, esaterako

koa osatzea: «gure ekoizpen ehunaren defentsa, inbertsio+garapen+berrikuntza politikaren garapena, sektoreen arteko oreka, lan kualifikazioa, eta ingurumenaren defentsarako kodeak garatzeko zein enplegu orokorra lortzeko».

Halaber, beste estatu batera euren ekoizpena eramateko itxiko luketen enpresei jaso ditzuten zerga-laguntza guztiak itzultzea behartzea. Honekin batera, okupatzen duten lurra esku publikoetara pasatzea edo, beinik behin, beronen bir-kualifikazioa galarazi beharko litzateke, espelelazioa galarazteko. Bestalde, beste herri batera ekoizpena eramateko xedean itxiko luketen enpresak Administrazio Publikoen esku geratu beharko liratekeelakoan dago sindikatua, eta enpresa hauetako langileek kudeatu beharko luketela esan du LABek —kooperatibak edota beste enpresa mota batzuk sortuz—. Aipaturiko beste neurria da lan agintaritzak errentagarriak diren eta deslokalizatzeo asmoa duten enpresen enplegu murrizketarako edo itxierako espedienteak ez lituzkeela onartu behar.

Deslokalizaturiko enpresen produktuei karga edota grabamen fiskalen ezarpena bultzatzea ere ezinbestekotzat jo du LABek. Eta, azkenik, deslektutze praktikak aurrera eramanez gura dituzten enpresetan kaleratzeak debekatuak lituzkeen Europako araudia.

Mobilizazio gehiago antolatuta ditu LABek datozen egunotarako: bihar, esaterako, Burlatan eta Sorluzetik Barakaldoraino. Hil honen 25ean Ziordiatik Alcoa; 27an, ostiralarekin, Elser Iberconta lantegian. Eta otsailaren 2an manifestazio nazionala egingo dute Gasteizen, 11:00etan.

iragarki laburrak ▶



Albiztur. Berrikuntza behar duen baseria salgai. 200 m² solairu bakoitzean. Hiru solairu. 35.000 m²-ko lur sailarekin. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Alkiza. Bi familientzako baseria salgai. Berrikuntza behar du. Informazio pertsonala.

Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Andoain. 80 m² dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua dago. Kanpoaldera, igogailuarekin, ikuspegi ederrekin. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 50 m² dituen apartamentua salgai, berritua. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Donostia. Rodil trabesia. Berritua dagoen apartamentu polita salgai, eguzkitua eta ikuspegi politekin. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Elosua. Berrikuntza behar duen baseria salgai. 35.000 m²-ko lur

sailarekin. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Irura. Laskibar zonaldean, eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Garajea aukeran. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Ligorreta. 3 hektarea dituen lursaila salgai. Sarbide egokiarekin. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Lizartza. Erdiberritutako etxebizitza salgai. Trastelekuarekin eta bodegarekin. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, 150 m²-ko etxebizitza salgai. Egoera paregabea, trastelekuak aukeran. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, eraberritzen ari diren etxebizitza salgai. Informazio pertsonala.

Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, azken etxebizitza salgai, eraikuntza berrikoa, 65 m² erabilgarri. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Berdura plazan, berrikritu lokal komertziala alokairuan. Guzтия erakusleia. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Martxan dagoen komertzioa salgai edo alokairuan. Informazio pertsonala. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Maitunako atzealdean dauden trastelekuak 8.600 eurotik aurrera. Berriak. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Lokal komertzialak ditugu hainbat zonaldeetan. Basabi. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

ALEGIA ▶

'Heziketa eta heriotza', Kultur Etxean

Alegiako Aralar institutuak antolatuta, Patxi Izagirre psikologoak hitzaldia eskainiko du gaur. *Heziketa eta heriotza* du izenburu saioak, eta 18:00etan izango da, Kultur Etxean. Aralar institutuko eta San Juan eskolako ikasleen gurasoei zuzendua dago.

AMEZKETA ▶

Euskara Elkartaren batzarrerako deia

Bihar, 19:00etan, Amezketa Euskara Elkartek hirugarren bilera egingo du, balio anitzeko gelan. Bertan, talde ireki honek dituen proposamenak eta ideiak plazaratuko dituzte, euskararen eta euskal kulturaren alde eginiko dituzten ekintzen berri emateaz gain. Edonor joan daiteke hitzordura.

ALEGIA ▶

Lehen bertso afaria Intxurre elkarte

Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak bertso afaria antolatu du, estrainez, Intxurre elkarte. Etzi izango da, 21:00etan, eta gonbidatu bereziak izango dituzte bertan: Aitor Mendiluze eta Amaia Agirre eskualdeko bertsolariak. 20 euro balio du afariak eta, besteen artean, txerriumea izango da jateko. Izenematea bihar arte irekia dago, Kultur Etxean.

SAN SEBASTIAN ▶

NEREA URBIZU

Urtero legez, etorri da urtearen lehenengo hilabetea eta, harekin batera, eskualdeko hainbat tokitan ospatzen den eguna: San Sebastian, alegia. Alegialdean eta Ibaraldean ospatzen dute bereziki; Orendainen, Berastegin eta Leaburun, zehazki.

Bi alditan martir izandako santu honen eguna, hortaz, era berezian ospatzen dute, festa giroa nagusi denez; hasiera batean, San Sebastian, epidemien aurkako santua bada ere. Izan ere, aipatutako hiru herrietan dantza, jakiak, nahiz musika izanen da.

Lehenengo urtean Berastegiko jai eguna ezin izan zuten ospatu, eguraldi petrala zela eta. Malkorraren gainean dagoen baselizara joateko ez zegoen batera eroso, eta bertan behera utzi zuten meza. Aurtengoari begira, iazko eguraldia baino hobeagoa egitea espero dute herritarrek. Ez da ahaztu behar, gainera, urtean behin ospatzen dutela bertan meza, egun horretan soilik, San Sebastian.

Leaburu-Txaramako Udalak ere arratsaldea ondo igarotzea espero du; izan ere, egun horretan egiten diren ekintzak bereziak izaten dira herri honentzat: bertako dantzariak ikustea eta herritar multzo polit bat Zazpi Bide elkarte biltzea ez da egunero egiten den zerbait.

Orendaingoa ere ez da makala: txistularien kantuek egun hotzari aurre egiten lagunduko dute, beste behin, haiekin doazen ermitarainoko bidea atseginduz. Hauek ere urtean behin ospatzen dute meza ermita honetan. Gainera, hamaiketakoaz gain, bazkaria ere antolatu dute Orendainen, urtero legez.

Eskualdean ere, urtero ospatzen da San Sebastian

Eskualdeko hiru herritan izaten da ospakizunik, erlijioa eta musika batuta



Orendaingo San Sebastian baselizan iaz ospatutako mezatan jende andana bildu zen. NOELIA LATABURU

EGITARAUAK ▶

Hauexek izanen dira hiru herrietan egingo dituzten ekintzak:

ORENDAIN

10:45. Herriko plazatik, txistulariek alaituta, kalejira izanen da San Sebastian baselizaraino.
11:00. Meza San Sebastian ermitan.
Ondoren. Herriko udal txanero hamaiketako banatuko dute.
14:00. Eltxoak elkartean bazkaria. Izena emateko epea gaur itxia dago jada.
▶ Oharra. Udalaren aldetik, hurrengo eskaera: eguraldi ona eginez gero, ibilgailuak herrian utzi eta txistularien atzetik oinez ermitaraino elkarrekin joatea. Txistulariak 10:45ean herritik irtengo dira.

LEABURU

17:30. Meza ospatuko dute ermitan.
Ondoren. Herriko dantzarien saioa ikusgai.
Bukatzeko. Merienda Zazpi Bide elkarte.

BERASTEGI

11:00. Meza San Sebastian baselizan.

Baliteke Berastegin ere meza ondoren hamaiketakoan bat edo beste egotea baselizara joan diren guztientzat. Eguraldiaren araberakoa izanen da hori, azaldu dutenez.

Ziurrenik jendearen gogoekin eguna atseginduko dutela, festa egiteko gogoia eta San Sebastianekiko debozioa eguraldi desatseginarekin gainetik baitago herri hauetan.

hitza lagunena txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
ONINAKOAK
Arostegietako kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ALKIZA ▶ GIZARTEA

Kubako Alkiza

Alkizako Udalak Kubako Alquizar herriarekin senidetze hitzarmen bat burutzeko asmoa agertu du, eta herritarrei galdetuko die ekimena babestu nahi duten

IMANOL GARCIA



Kubako herriaren elizaren irudia. LUIS MARI INTZA



Alquizar herriko etxebizitza bat; kalte handiak jasan zituzten hainbat herritarrek beren etxeetan Txarli urakanagatik. LUIS MARI INTZA

Alkizako Udalak, udalbatzar batean, Alkiza eta Kubako Alquizar herrien senidetze hitzarmen prozesu bat burutzeko udal konpromisoa adieraztea erabaki zuen. Hitzarmena burutu aurretik, ordea, herritarren iritzia jakin nahi du Udalak eta, horregatik, udalbatzar berean, gai horren inguruko herritarren interesa jakin nahian Agenda 21eko herri batzarraren bidez kontsulta egitea erabaki zuen. Oraindik ez dago bilera horren eguna zehazturik, baina hilaren bukarean izango da.

Senidetze prozesua proposatzeko, Alkizako Udalak kontuan izan du Pello Joxe Aranburu herritarrek egindako bi herrien arteko loturari buruzko informazio bilketa. Bestalde, Alquizar herriko alkateak bere herriari buruz bidalitako informazioa ere izan du kontuan, non Kubako herri hori Alkiza herriko jatorria zuen pertsona batek fundatu zuela azaltzen den.


Anaitze prozesua abiatzea onartzen badute herritarrek, Udalaren hasierako asmoa Alquizar herriak beharrezkoa dituen zenbait gauza bildu eta bidaltzea izango litzateke: medikamentuak, eskola liburuak... «Hortik hasiko litzateke bi herrien arteko harremana», azaldu dio Joxe Aranzabe zinegotziak Hitzari. «Alkizan talde bat sortzea komeniko litzateke laguntza guztia bideratzeko. Gero, bestelako harreman motak sortzen diren ikusi beharko da».

Alquizar-en sorrera

Sancho de Alkiza y Gamboa izan zen Kubako Alquizar herriari izena eman ziona. Itsas kapitaina, Kubako gobernadorea izan zen eta bertan nekazaritza bultzatu zuen. Sancho de Alkiza y Gamboa Hondarribian jaio zen 1567. urtean, eta Habanan aurkitu zuen heriotza 1619. urtean.

Hondarribiako Alkizanea baserrikoa zen Alquizar herriko fundatzailearen aitona, Sancho de Alkiza izenekoa. Kapitain militarra, honen bizitza ere itsasora lotuta izan zen. Haren semea, Santxo de Alkiza y Oriarte, fundatzailearen aita, Maria de Gamboarekin ezkondu zen. Bera ere itsas kapitaina izan zen, eta Alkizanea baserri-rik Chapitel izeneko etxera joan zen bizitzera.

Eta, zer harreman du Hondarribiako familia honek Alkiza-



Alquízar herriko ordezkarriak, plaza batean; herriaren kale bateko irudia eta tren geltokia. INTZA / WWW.GUIJE.COM

ko herriarekin? Bada, abizena bera. Egun ez baitaiteke guztiz ziurtatu ere, logikoena familia honen arbasoak Alkizakoak zirela pentsatzea da, eta horregatik zeramatela abizen hori. Mende horietan normala zen baserriaren izena edo herriaren izena hartzea abizenerako.

Alquízar herrian liburuxka bat dute, ikasleei herriaren sorrera azaltzen diena. Bertan Sancho de Alquízar-en izena aipatzen da, eta nola berak hartu zuen egun Alquízar denaren lurrak 1616. urtean eta nola bere abizena eman zien lur horiei.

Alquízar, egun

Habana probintziako 26 udalerrietako bat da Alquízar. Probintziaren hego-mendebaldean dago, eta 205 kilometro koadro ditu. Iparraldean San Anton de los Baños du, ekialdean Güira de Melena, mendebaldean Pinar del Río probintzia eta hegoaldean kosta du, Batabano golkora ematen du. Habana hiriburutik 50 kilometro ingurura dago Alquízar, eta 29.000 biztanle inguru ditu.

Luis Mari Intza tolosarrak 2004. urtean bisita egin zuen Alquízar herrira, Pello Joxe Aranburu lagunak eskatuta; hango agintariek ongietorria egin zioten eta haiekin izan zen solasean. Bisitan zenbait datu jaso zituen, Txarli urakanak eragindako hondamendiak, esaterako: herriko 8.100 etxetatik 5.384rek kalteak izan zituzten; 680 etxe erabat txikiak; 1.588 etxeri teilatua erabat kendu zien; 2.446ri teilatua erdizka kaltetu zien; eta 670 etxek kalte txikiak izan zituzten. Bisita horretan Heroes de Yaguajay izeneko kooperatiba bat erakutsi zioten Intzari. 200 bazkide ditu, eta tabakoa, patata, platanoa, barazkiak eta hainbat tuberkulu ekoizten dituzte.

Tolosaldeko Alkizaren izen bera daraman Kubako herri horren informazio gehiago jakiteko bere web orrialdera jo daiteke, www.guije.com/pueblo/municipios/halquizar helbidera, hain zuzen ere.

KUTXA INBERTSIO-IRTENBIDEAK

Errazagoa duzu inbertsiorik onena aukeratzea.

Ezagutu itzazu **Kutxa Inbertsio-Irtenbideak**. Gehien komeni zaizun inbertsio-irtenbidea aukeratzeko lagunduko dizuten finantza-produktu sorta eta analista- eta aholkulari-taldea. **Zatuz gugana. kutxarekin, erraza da asmatzea.**



ZIZURKIL ▶

Desagertua
topatzeko
lanek ez dute
etekinik izan

Ertzaintzak, Gurutze Gorriak, DYAk eta Babes Zibilak herenegun ekin zieten

ERREDAKZIOA

Herenegun ekin zieten Ertzaintzak, Gurutze Gorriak, DYAk eta Babes Zibilak 77 urteko Orencio Moreno desagertuaren bilaketa lanei. Ia 12 orduz egon ziren ibai ingurua arakatzen, Villabonako urtegia eta beste hainbat zonalde miatu zituzten, hain zuzen. Erreskate taldeko langile batzuk urpean aritu ziren, eta beste batzuk, berriz, erreka bazterrak arakatu zituzten. Ertzaintzaren helikoptero batekin ere aritu ziren goitik lanean. Baina lanek ez zuten etekinik izan.

Zizurkildarra hilaren 27an desagertu zen, kaletik bere etxera zihoala. Etxetik 100 metrora aurkitzen zen azkeneko ikusi zutenean. Froga argirik ez badago ere, antza, Oria ibaira jausi zela uste dute ikerketan ari direnek. Familiak, bestalde, ez daki nondik nora jo; izan ere, ez beharra jazo zen egunetik ez dute desagertuaren pista topatu, ez lekukorik, ez eta berak soinean zeraman jantzi edo bestelakorik, eta horregatik eskatu zuten berriz ere ikerketa lanekin jarraitzea. Ikerketa lan horiek hilaren 8an utzi behar izan zituzten ibaiak zekarren ur kopuru handia zela eta.

Bestalde, Gipuzkoako hainbat herrietan desagertuaren argazkiekin eta telefono zenbaki batekin kartelak jarri dituzte. Daturik eman dezakeenak zenbakira deitza eskatu dute ikerketan aurrera jarraitu ahal izateko.

IBARRA ▶ HEZKUNTZA

Etzi ekingo diote
Uzturpe ikastolako
VI. Kultur Asteari

Hilaren 27ra bitarte, haurrentzako festa, hitzaldiak, dantza saioa, irteera, argazkiak, musika... izango dira



laz ere Haur Festa erraldoia antolatu zuen Uzturpe ikastolako Kultur Astearen baitan. JAIONE ASTIBIA

IÑIGO TERRADILLOS

Etzi hasi eta hilaren 27ra bitarte Uzturpe ikastolako VI. Kultur Astea antolatu du. Gaztetxoek zuzenduriko festa, mendi irteera, hitzaldiak, musika, dantza saioa, argazki erakusketa... Denetik izango da aste osoan.

Haur festa eta mendi irteera izango dira asteburuan. Astelehenean ostegunera, hitzaldiak izango dira Kultur Etxean; eta bertan, ostiralean, Jone bakarlarriak kontzertua eskainiko du; ondoren, Alurr dantza taldearen txanda izango da Belabietan. Halaber, astean zehar, Kalkuta Ondoan GKEren argazki erakusketa izango da ikusgai Kultur Etxean. Bestalde, ludotekan haurtzaindegi zerbitzua izango dela ohartarazi dute Uzturpekoek.

EGITARAUA ▶

ETZI

11:30-13:30 / 16:00-18:00. Haur festa erraldoia Belabietan kiroldegian: gaztelu puzgarriak, euskaraoketa...

Ondoren. Txokolatea San Bartolome plazan.

HILAK 22, IGANDEA

Irteera. Azpeitia-Ingurumen etxea mendi irteera.

HILAK 23, ASTELEHENA

18:30. *Nola konpondu guraso eta seme-alaben arteko gaztazka?* hitzaldia, Alberto Olalde Geuz taldeko kidearen eskutik.

HILAK 24, ASTEARTEA

18:30. *Familiaren garrantzia*

nerabezaroan hitzaldia, Carmen Maganto EHUko Psikologia katedradunaren eskutik.

HILAK 25, ASTEAZKENA

11:00. *Boluntarioak* mahai ingurua: Ibarrik Misio Taldea, Kalkuta Ondoan GKE, Irazki, Tolosaldea Sahararekin...

HILAK 26, OSTEGUNA

18:30. Haurren hizkuntza nola sustatu, Marta Fernandez logopedaren eskutik.

HILAK 27, OSTIRALA

20:00. Jone bakarlarriaren kontzertua.
22:00. Alurr dantza taldearen ikuskizuna, Belabietan.

IBARRA ▶

Uztak deituta,
gaur batzarra
Kultur Etxean

Gaur, Uzta plataformak deituta, batzarra izango da Kultur Etxean, 19:30etik aurrera. Arau subsidiarioak izango da jorratuko duten gaia.

LIZARTZA ▶

Hasi dituzte
Inauterietarako
prestaketak

Inauteriak otsailaren 11n, 18n eta 19an ospatuko dituzte Lizartzan. Dantzariak dagoeneko hasiak dira entseguen, eta herritarrei ere festarako prestatzen hasteko deialdia luzatu diete.

IBARRA ▶

BECera joateko
autobusa
antolatu dute

BECera joateko Ibarrik autobusa antolatu dute. 15:00etan irtengo da, ohiko lekutik.

GAZTELU ▶

6 etxebizitza
tasatuetan
izen-ematea

Ostiralean ireki zen Osin-goiengo 6 etxebizitza tasatuetan izen emateko epea, eta egun horretatik aurrera 20 eguneko tartea egongo da izena eman ahal izateko. Halaber, ondorengo baldintzak bete behar dira: 18 urtez gorakoa izatea, herrian bertan erroldatuta egotea, 12.000 euroko behin-behineko fidantza ordaintzea, eskatzaileek 35.000 euro edo gehiagokoko diru sarrerak izatea, eta ez izatea beste etxebizitzarik jabe goan.



ESKERTZA ▶

Miguel Uriá Ameztz jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi.

Tolosa, 2006ko urtarrilaren 19a



ESKERTZA ▶

Alejandro Reguero Gonzalez jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi.

Zizurkil, 2006ko urtarrilaren 19a



ESKERTZA ▶

Margarita Ugartemendia Apaolaza andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi.

Tolosa, 2006ko urtarrilaren 19a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



LEITZA ▶

Ez da zine emanaldirik izanen asteburuan

J. ASTIBIA

Aurreko bitan saio bereziak eta jendetsuak izan ziren; Ihoteak direla-eta honetakoan ez da pelikularik proiektatu Leitzako zinema aretoan, ez eta hurrengoan ere. Emanaldiei otsailean berrekinen diete, 3an eta 5ean, ohiko ordutegietan. Baita hurrengo bietan ere. Hil horretan, ordea, azken asteburuan Tolosako Inauteriak izanen direnez, horretan ez da filmik izanen.

ZUZENKETA ▶

Atzo orrialde honetan argitaratu genuen argazkian, Jon Rekondorekin (ezkerrekoa) batera ageri zen aizkolaria, ez zen Joseba Otaegi, Igartza baizik. Barkamenak Otaegiri eta irakurleei.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411
▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Iruera.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KULTURA

Herriko 'Aizkolariak eta lasterkariak': testimonio bilduma

Urtebetez han eta hemen grabaketak eginez Agustin Aranburuk egin duen bideoa ikusgai izanen da bihar

JAIONE ASTIBIA

Bihar, ostirala, hilak 20, 19:00etan, *Aizkolariak eta lasterkariak* bideoaren proiektzioa eskainiko dute Leitzako zinemaren, bertako Kultur Taldearen eskutik.

Bideo hau Agustin Aranburu leitzarrak egin du. Urtebetez

zehar jasotako 22 lagunren testimonioak jaso ditu: aizkolariak, lasterkariak, apustuak, desafioak, gertakariak eta txapelketen inguruko adierazpen eta kontakizunak guztiak.

Bi ordu inguruko iraupena duen emanaldian zehar, herrian ez ezik Euskal Herrian ere bere garaian sonatu izan

ren hainbat herri kirol ikusluzen eta kirolariren inguruan, herrian bertako hainbat eta hainbat lagunren iritzi eta hitzak emanen ditu ezagutzera.

Plazaolako semeak beti izan omen du aizkorarako zaletasuna, ikusle gisa, eta bideoz grabaketak egitea ere bai; bi zaletasunak uztartu ditu orain.

AGUSTIN ARANBURU ▶ 'AIZKOLARIAK ETA LASTERKARIAK' BIDEOAREN EGILEA

«Aizkora kontuan han eta hemen entzundakoei buruz galdegin dut»



JAIONE ASTIBIA

Agustin Aranbururekin egon da HITZA, bihar eskainiko duen bideoaren inguruan zertxobait gehixeago jakite arren.

Bideoan zer ikusten da?

Testimonioak dira. Herriko aizkolaria eta lasterkari izandakoa aukeratu ditut, eta haiei galdetu diet non hasi ziren, noiz, garaian garaiok markak... Eta batzuei bai, beste ez, apustu zehatz batzuei buruz galdegin diet, horiei buruz informazioa badutela badakidalako; eta gero

kirola egiten ere ageri dira, zenbait apustu, aizkorak, pres-taketa saioak...

Esate baterako, bitxikeriaren bat aurreratu daiteke?

Bada, Sarrioko fabrikari, artean pabilioiak hutsik zeudela, beste estalperik ez zegoen nonbait eta, Enrike Bildarrazen eta Migel Zabaletaren arteko apustua jokatu zenekoa konparazioa.

Nola egin duzu lana, ekitaldiak aukeratu eta horien gainean galderak egitera joa-

nez, edo kirolariekin hitz egin ahala sortuz?

Ez, ekitaldiak aukeratu egin ditut, aizkora kontuan jarri eta han eta hemen entzundakoa. Eta gero dagokionari galdeztzera joan naiz, zerbait bazekiela jakinda.

Zenbat lagunekin egon zara?

Uste dut 22 lagun direla. Aizkolariak, afizioa dutenak, lasterkariak, lehengo kontu batzuz gogoan dauzkaten herri-tarrak, esate baterako, 10 leitzarrek 10 gipuzkoarrei desafioa egin eta ez zela inor azaldu, gutxiak dakite hori, urteak pasa ahala gutxiagok, gainera...

Eta denak herritarrek dira?

Bai, hizketatzen diren guztiak leitzarrak dira, batzuk kanpoan bizi direnak.

Zenbat denboran aritu zara honetan?

Hasi eta buka, urte bat. Jendearekin hitzorduak zehaztu, joan, prestatu, grabatu... zenbaitetan errepikatu ere bai. Urtebete oso-oso. Bost bat orduko grabazioak jaso ditut.

Eta gero muntaia.

Bai. Ordenatu aurrena, gaika sailkatu edo, eta gero aukeratu, asko moztu, asko, azkenean bi ordura biltzeko.

Nekeza?

Gehien kostatzen zaidana mozte eta muntatzea izan da. Grabaketak oso polita: ikaragarri gustura aritu naiz, joan naizen guztiek erantzun didate, eta ongi, gainera. ◀

LEITZA ▶

Erleta eskolan, Ihoteetako kalejira bihar egingen dute

Asteartean jai dutenez Ihoteak aurreratuko dituzte hala, kaleak kolore-doinuz betez

J. ASTIBIA

Bihar hasiko dira Erleta eskolako ikasle, irakasle eta gurasoentzat Ihoteak.

Hurrengo astean, astelehenean ez ezik aurtun asteartean ere jai dutela eta, ordainez, egun horretan egin izan duten kalejira bihar egingen dute, 15:15etik aurrera.

Kalejira atera, Erleta eskolako ataritik bertatik egingen da, eta Amazabal auzoan barrera itzulia eginez, herrian gora, alde zaharretik barrera, plazan bukatuko dute ibilbidea. Hau guztia, besteak beste, ikastetxeko bertako eta Amazabal institutuko ikasle diren txistulari eta trikitilarien doinuez alaiturik egitekoak dira. Eta, noski, ikasle eta irakasle guztiak, gurasoak ere gonbidatu dituzte bertan parte hartzera, atxotuta aterako dira; zikloka, batzuk euskal Ihoteetako pertsonaiez, besteak kalde-deroz, besteak artzain eta inudez, besteak txantxoaz...

Soinuz ez ezik kolore biziz betetako jende uholdeak zeharkatuko du herria, eta plazara aialutatukoan, aktuazio tiki pare bat izanen omen dira, joko malabareak, dantzak tarteko. Bukarera, goxokiak banatuko dituzte plazan, 16:30ak aldera.

Aitatzekoa da, gainera, kalejira, eguraldiaren arabera egingen dutela. Eguraldi txarra balitz, Amazabal pilotalekuan bertan egingen omen lukete festa, kalejirarik egin gabe, antolatzaileek beraiek jakinarazi dutenez, behinik behin.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Gure orrialdeko atal honetan hainbat gairen inguruan irakurleok gure iritzirik eman ditzakegu. Besteak beste, esate baterako, gure eskualdeetan etxebizitzaren gaur egungo egoera nola ikusten denari buruz, edo euskararen egoeraz...

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko urtarrilaren 19a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Aitor Mendiluzerekin eta Amaia Agirrearekin bertso afaria, etzi, 21:00etan, Intxurre elkarte. Izen-ematea, 20 eurotan, Kultur Etxean, Intxurren eta ohiko tabernetan.
Tolosa. Arrantza egiteko lizentziak gaur tramitatuko dituzte Tolosako Arrantzaileen egoitzan (Soldadu kalea), 19:00etatik 20:30era.

HITZALDIAK

Alegia. *Heziketa eta heriotza*, Patxi Izagirre psikologoaren eskutik. 18:00etan, Kultur Etxean. Aralar institutuak antolatuta.
Tolosa. Nabarralderen saioa. 19:00etan, Bonberenean.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Asteasu. Europaz haraindi, Ipar lurmuturretik Tarifara, Ina Ruforekin. 20:00etan, zine aretoa.
Tolosa. Zine-kluba: *Letter from an unknown woman*. 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea, 112.
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina. Eguraldia Joxe Landarekin, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari*, Matraiaiko Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Gau bero* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

HITZA,
zorian agurren tartea
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!

Txoko guztietatik

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Jonek, Mariak, Leirek, Maialenek, Norak eta Lidek ere parte hartu dute gure deialdian; hauexek dira haien marrazkiak



TOLOSA ▶

Jon Lopez de Murillas Perea (6 urte, Tolosa).

«Kaixo, Jon naiz eta 6 urte ditut. Nafarroako zubia marraztu dut», azaldu digu gure lagun tolosarrak.



IBARRA ▶

Leire (6 urte, Ibarra).

Leire gure lagun ibartarrak ere ekarri digu bere marrazkia HITZARA; besteak beste, udaletxea, etxebizitzak, Uzturpe ikastola... ageri dira.



ALEGIA ▶

Nora Alustiza Murillo (5 urte, Alegia).

Gabonetako irudia jaso du gure lagun Norak bere marrazkian: Olentzero Alegiko txokoetara opariak eramaten.



TOLOSA ▶

Maria Lopez de Murillas Perea (9 urte, Tolosa).

Gure lagun Mariak ere badu leku kuttunik bere herrian; hain zuzen ere, Tolosako udaletxe ingurua aukeratu du bere marrazkirako.



ABALTZISKETA ▶

Maialen Senperena Iztueta (9 urte, Abaltzisketa).

«Niri nire herria horrela egotea gustatuko litzaidake. Udan putzuan bainatuz, eguzkia hartuz belar berdean...».



ALEGIA ▶

Lide Alustiza Murillo (3 urte, Alegia).

Lide gure lagun alegiarrek ere Gabonak aukeratu ditu bere lanerako: Olentzero dotorea marraztu du.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila
HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...) **943 30 43 46**